

6

ARABA

Olandinako urmaela



Ingurumen-garrantzia

Nekazal ingurumeneko urmaela da. Arreo-Caicedoko aintzira eta Arbietoko urmaelarekin batera, diapiroei kidetutako hezegunerik garrantzitsuenetakoa da. Karst igeltsudun bideen suntsiketak sortu duen sakongunean du jatorria.

Urmaelaren inguruko landareak ugari dira, batez ere sahatsen eta lizarren gerrikoa, ur ondoko lehen lerroan. Halaber, ur landareen aberastasuna nabaria da, hala nola Helofita handiak (*Scirpus lacustris*).

Aintziraren ur-azalean, Euskal Herrian beste inon ez dagoen igebelar zuria (*Nymphaea alba*) aurki dezakegu. Gainera, urmaela habitat egokitzat jotzen dute apo pikartak (*Pelodytes punctatus*) eta baso-igel jauzkariak (*Rana dalmatina*).

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 4,7 km



Ordu 1 eta 30 min



Udalerria:

Arraia-Maeztu

Hurbileko herria:

Birgara Barren



Ingurunea ez dago
arriskuetatik kanpo



757 m



93 m



681 m



92 m



Olandinako urmaela



Non dagoen eta nola heldu


Apellanizeko hiribarnetik Maeztura doan A-4123 errepidean bostehun bat metro egindakoan, soroetan barrena dabilen lur-biltze bidea hartuko dugu. Pistan aurrera bat koma hiru kilometro eginda, ezkerretara egingo dugu bidea aldatzea soroetan zehar.

Handik hirurehun bat metrora aurkituko dugu urmaela eta landare gerrikoa.

Eskuinetik inguratu ondoren, soroetan zehar aterako gara Birgaratik. Apellanizera doan errepiderako bidegurutzera. Han, ezkerretara joko dugu eta berrehun metro egin ondoren, eskuineko lur-biltze bidea hartuko dugu Apellanizera itzultzeko.

Olandina urmaela Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko koadrantean dago, Arabako Mendialdea eskualdean, Arraia-Maeztu udalerrian, Vírgala Menor/ Birgara Barren herriaren ondoan. Gasteiztik Lizarrarako bidean hasiko gara A-132 errepidean, eta Vírgala / Birgara herrira heltzean, Apellaniz aldera joko dugu.

Bisitaldia edozein urtarotan egin daiteke.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Olandinako urmaela



Olandinako urmaela

